

EBAZPENA, 2025ko abenduaren 17koa, Zientzia eta Berrikuntza sailburuordearena, 2025-2026 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuaren 2025eko uztailaren 22ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituen (Ikerketa Orokorra).

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Zientzia Politikako zuzendariak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen lehenengo berritzea ematea (Ikerketa Orokorra), 2025-2026 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen bigarren berritzea ematea (Ikerketa Orokorra), 2025-2026 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen hirugarren berritzea ematea (Ikerketa Orokorra), 2025-2026 ikasturterako, honako hauek adierazita: ezarpen-zentroa, onuradun bakoitzak urteko ordainsari gordin gisa jasoko duen zenbatekoa, jarduera uzteagatiko kalte-ordain gisa jasoko duen zenbatekoa eta zentro bakoitzak dagozkion lan-kontratuak finantzatzeko jasoko duen zenbatekoa.

Laugarrena.- Indarrean dauden lan kontratuak luzatu egingo dira 2025eko uztailaren 22ko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Bostgarrena.- 2025eko uztailaren 22ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, ordaintzeko era, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuek Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuari gorako errekurtsua jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2025ko abenduaren 17an.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Zientzia eta Berrikuntza sailburuordea